

**POBREAREN AMETSA LABURRA**

Zoritzarreko krisia eta bere ondorioak baino ez ditugu aspaldion ahominean. Oparotasunean igeri egin eta osteko sasoiotan sarri entzuten dogu ez gareala lehengo ongizatera bueltauko, garai oparo hareek betiko joan zirala. Egia izango da, bitartean sufridutea egokitu jaku, eta holako amaiera eukiko ez dauen eredu barria nahi badogu gertatutakoaz kontzientzia hartu, hausnarketa sakonak egin eta ia-ia hutsetik hasi beharra daukagu. Hurreko bati entzun neutsan esaldi batek eragin eustan hausnarketea: “danok aberatsak garela pentsauta bizi izan gara aurreko urteetan eta begitu zelan amaitu dogun”. Eta esaldi horrek bere barruan dakar egoera honetan amaitu izanean guztiok daukagun erru zatia. Krisia gordindu danetik errudun bila gabiliz eten barik, baina danok daukagu kanpora begiratzeko joerea eta ez norberak egindakora. Bizi dogun egoera latzera heltzeko errudunak egon badagoz eta agintariak, erakundeak, bankuak... joten dira nagusizat. Baina “aberatsak garelakoan bizi izan gara...” esaldi horrek herritarrok be zer edo zer oker egin dogula adierazten dau. Norbere buruari egindakoa aitortzen ez deusagun bitartean eta errudun guztiak gugandik kanpo bakarrik bilatzen ditugun bitartean ezer gitxi konpontzeko arriskuan gagoz, barriro zulo berean jausteko zorian.

Agintariei kontuak eskatu behar jakez egindakoz, baina gutako bakoitzak hausnartu, egindakoz kontzientzia hartu eta

bizi estiloa aldatzen ez dogun bitartean gatxa izango da barriro zulo berean ez jastea. Jacques Derrida filosofoak sortu eta sukaldaritzan Adria Ferrak ezagun egindako *desegite* terminoa lapurtu eta neure erara moldatuko dot gai honetara: kontsumo gizarte honetan eregi dogun bizi estiloa *desegin*, osagaien zerrenda zehaztu, modu egokiagoan nahastau eta barriro hasteko preminan gagoz. Ez daukagu agintarien erabagien zain egon beharrik, boteretsuek ez gaitue derrigorrean bideratu behar, norberak egin leike *desegite* prozesu hori inoren zain egon barrik. Izan be, ezartzen deuskuezan eruedetatik apartekoak sortu eta beste batzuetan bizi izateko gaitasuna daukagu norbanakook eta erabili egin behar dogu. Nik gaur egun miresten ditut bizitako oparotasun garaietan aberatsak izateko nahi horri uko egin eta beraien neurriko bizimodu estiloa eregi dabenak, sartu garen zulo honetan gitxiago sufriduko dabelako.

“Aberatsak garela pentsauta bizi izan gara...”. Egia galanta. Oparotasunean izan dogun bizi maileari eusteko ondasun nahikoa euki barik ekin deutsagu dirudunen erueda kopieteari. Etxea danetariko tresna teknologikoz bete dogu, etxea bera erosteko guztiz zorpetu gara, garajea ahalik eta kotxerik ederrera eukiteko hipotekea bera be handiagoa eskatuz. Eta hori gitxi balitz munduko hainbat bazter ezagutu ditugu hipoteka emon deuskun banku berak bidaietarako emondako maileguekin. Gure bizimodua ustez oinarrizkoak eta preminazkoak ditugun gauza eta zerbitzuz hornidu dogu. Berehala iraungitzen eta barritzen diren produktuen salerosketa etenbakoan sartu gara.

Dirua emon be barra-barra egin deuskue bankuek aurreko urteetan, erreztasun guztiekin. Iturria zabalik egon da eta tiratu egin dogu, edan egin dogu, irunsi egin dugu. Iturria zabalik egon dan bitartean esan deuskue eskatzeko nahi beste, itzuliko gendula epe luzeetan eta kopuru txikietan. Eskatzeko dirua etxea erosteko, alokatzea baino hobe dela-eta. Izan be, zein aberats bizi da alokairuan? Zeinek dauka etxe txikia? Zeinek dauka etxe bakarra?...

Sinistu dogu bankuen agindua eta eskean hasi gara: etxerako, kotxerako, bidaiarako...geure burua dirudunen gero eta parekoago ikusten hasi gara, ez dogu iturria agortzeko arriskurik ikusi.

***Aberastasunak, barrokeria lagun.*** Baina gatxa da aberastasunari neurria hartzea. Gizakion ase ezintasuna handia da eta ez dogu jakin geratzen, galgea ipinten. Ustezko aberastasun horretarako bidean pertsonak bere izaeragaitik barik daukatenaren arabera neurtzen hasi gara, balioa batez be materialtasunari emonez. Kontsumoaren etenik bako gurpilean sartu gara, besteen aurrean onenaren jaube garela erakusteko. Estatua eman deuskue etxe handiak, kotxe onak, eten barik aldatzen dogun azken generazinoako telefonoak, munduaren beste aldera joan-etorria egiteak, etxea garbitzeko neskamea eukiteak...Daukaguzanak eta batez be ez daukaguzanak gastau ditugu ustez ezinbestekotzat jo ditugun beharrok asetzen. Aberatsen bizi mailea sortu dugu euren dirutzea euki barik, zegaz erantzun izan barik.

***Geuze gitxigaz ezin luzaro aberats plantie ein.*** Baina jakina, zuloa handi egin dogunean, maileguzko diru iturriak zarratu deuskuezenean eta egoerea okertu danean ezin izan deusagu egoerari eutsi eta gure aberats planta guztiak jausi dira, geuk uste baino lehenago. Geure lekura itzuli gara, baina oparotasunaren garaiak itzitako zor eta ustezko beharrian eta menpekotasun guztiekin. Maleta astuna orain gaineretik kentzeko.

***Aberatsak harrian azpian abaideak, pobreak bat ere ez.*** Benetako aberatsak topau dau babesa, bankuek aurkitu dabe nork ordaindu eurak oker egindakoa. Baina guk ez, urteetan aberats plantan bizi izateko sortutako zorra ordaindu beharra daukagu orain eta nork lagundu gero eta gutxiago.

***Hobe pobre ibili, baña zorrik gabe.*** Zorpetu egin gara geure neurritik kanpoko bizimodua egiteko, agindu hutsalen jokoan jausi gara, baina sarri askotan geure erabagiz. Errudu-

nak kanpoan bilatzea ondo dago, bakoitzak ordaindu dagiala egindakoa eta oker egindakoa zuzendu. Baina joko horretan hain erraz sartu garenok be geure buruari itaun asko egin eta kontuak eskatu beharra daukagu egoerea bideratu eta barriro horma beragaz topo egin nahi ez badogu. Bizi izaten berrikasi behar dogu, neurrian bizi izaten.

***Zein da benetako aberatsena? Bere doiaz gogobetazten dena.*** Atsotitzagaz guztiz bat etorrita be, teorian hain polito geratzen dana egia bihurtzea ez da erreza. Eten bako kontsumoaren gurpilera konbidau gaitue eta gerokoetan eta gu baino txarrago dagozanetan pentsau barik emon deusagu baietza gonbidapenari. Kontsumoaren ereduan bizi izaten arin eta erraz ikasi dogu, lastoaren eta alearen artean alde dagoela ahaztuz. Urte askotan ez dogu bereizketarik egin desio izan dogunaren eta benetan behar izan dogunaren artean. Dana bihurtu dogu beharizan, dana kontsumogai eta gaur egun eredu horri buelta ematea gatxl egiten jaku.

Horregaitik dinot gertatutakotik ikasi nahi badogu eta beste eredu bat sortu, geure bizi estiloa *desegin* eta berreregi behar dogula: osagai bakoitza isolatu, aztertu, mamina bilatu eta ostean mami horri gainerako osagaiak modu egokiagoan gehitu. Bizitzan benetan zoriotsu zerk egiten gaituen jakin behar dogu, inguruan daukagun guztitik zer dogun benetan beharrezkoa eta zer artifizio eta apaindura hutsa. Baina prozesu hori egitea ez da bape be erraza, oso gatxa da eregi dogun eredutik urtetea. Onera ohitu gara eta hori erraza da, baina ustezko bizimodu onari borondatez uko egitea gatxagoa da. Lehenengo eta behin *desegite-berreregite* prozesua egiten ikasi behar dogu.

***Zaharra da liburu, baren esana dagigun.*** Aitatutako atsotzitz eta esaera zaharrok eta erabili ez ditugun makina batek erakusten deuskue badaukagula zer ikasia iraganetik, gure nagusiengandik, euren bizimodu eredutik. Hainbeste alferreko barik lasai eta ondo bizi izaten jakin izan dabe, alferreko pre-

minetan sartu barik. Badaukagu zer ikasia mundu honetako bazter askotan ezer gitxiagaz bizi diranengandik be, diru eta baliabide materialez probretzat ditugun baina izpirituz gu baino askoz be aberatsagoak diranengandik. Biluztu daigun bada gure bizimodua alferrekoz eta jantzi daigun zoriontasunaren traje soilagoa, bakoitzaren bizimodua errazteaz gain mundu justuagoa eregiten be laguntzeko. Eta horretan gutariko bakoitzak be badauka egitekoa. Ez gaitezen inoren zain egon eta geugandik hasita bilatu daigun bizi eredu egoki, justu eta eusgarriagoa, bakoitzarentzat eta danontzat.

*Jabier Onaindia.*